

Gure herriak pairatzen duen egituraketa politiko aldrebesaren ondorioa da hori. Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta herrialde historikoen diputazioen kultur arduradunei egin behar zaie bisita. Gainera, politika bateraturik ez dago. Bakoitzak bere aldetik jotzen du. Gipuzkoako Diputazioak Euskal Herri osoko kulturgintzaren zati pisuzko bat diruz laguntzen du batetik eta bestetik Bizkaiako Diputazioan bizkaitarra ez denak edo jarduera nazionala duenak nekez lortuko du sosisik ikustea. Ez dirudi honek bada, kulturgintzarako egoerarik suspergarriena. Dena dela, horretan ez dugu herritarrok hobetik, beren konpetentzia, ahalbide eta ardura definitu ez dituzten arduradun politikoez baizik.

Zergatik finantzatu behar ditugu gipuzkoarrok gainerako euskal herritarren kultur jarduerak, beraien agintari politiko zuhurrek guri ukatzen dizkigutenean gipuzkoarrak garelako? Ez nago ni Gipuzkoako Diputazioaren politika horren kontra, herri bat omen garelako besteak beste, baina memelo-aurpegia jartzen zait maiz, zenbait erantzun jasotzen ditudanean gainerako diputazioetan.

Hausnarketarako puntu batzuk jarri nahi izan ditut mahai gainean, besterik gabe, hobeto formula zitezkeenak akaso, baina horrek lan asko (ez-produktibo?) eskatuko luke eta biritzeko produktu fisikoak produzitu behar ditugu.

1. Kalitatearen beharrari buruz, oso interesgarria da Pedro Migel Etxeniketik «Gizartearen eta Zientziaren Arteko Lotura» artikuluan egiten duen azalpena. *Uztaro*, 15, 17-36 or.

## JOXEMARI ITURRALDE

### EUSKAL LITERATURA EMIGRAZIOAN ETA EXILIOAN

Urteroteta euskal kulturaren alorrean ospatzen den eginkizun interesgarrienetakoa dugu Galeuzka. Eta ez da idazleen intereseko soilik izaten, zeren azken finean literaturarekin batera hainbat gai ezberdin aztertzen baita, hasi soziologiatik segi historiarekin eta sarritan politikarekin amaitzen delarik.

Aurten, urtero bezalaxe, Galeuzka ezin interesgarriagoa ospatu berri da A Coruñan. Gaia «Literatura emigrazioan eta exilioan». Herri guztiek izan dituzte, historian zehar, beren emigratu eta exiliatuak eta alde horretatik esan daiteke Euskal Herriak ere izan duela bere kopurua, eta ez txikia gainera. Galdera ordea hauxe da: zer nolako emaitza literarioak izan ditu euskal emigrazio eta exilio horrek?

Hau guztia aztertzearen eta galdera horri zegokion erantzuna emateko asmoz joan dira aurten zenbait euskal idazle Galiziarantz idazle katalan eta gailegoekin batera gai horietaz hitz egiteko eta eztabaidatzeko. Jakina da ezinezkoa dela hiru egunetan gaia erabat agortutzat ematea baina bazegoen zer esan eta zertaz pentsatu. Hemen ordea ez gara hasiko laburtzen idazle eta kritiko bakoitzak esan eta bere momentuan defendatu zuena. Alde batera utzi beharko ditugu katalan eta gailegoen ponentzia, iritzi eta eztabaidak eta soilik euskaldunek esandakoa, posible bada honela korrika eta presaka laburtzea, azalduko dugu hemen.

Gerra zibilarekin batera exiliora joateko zorigaitza aztertuz, Andolin Eguzkitzak Jokin Zaitegi apaizaren lan eskerga azaldu zuen, esplikaturaz nola honek 1950etik 1959ra arte *Euzko Gogo* aldizkaria kaleratu zuen Guatemalako exilioan aurrenik eta gerora Miarritzen. Bere izenaren ondoan Andima Ibinagabeitiarena aipatu zuen bi hauek izugarrizko bultzada eman baitzioten euskal kultura eta, bereziki, literaturari garai latz eta gogor haietan. Puntako idazleek hartu zuten parte aldizkarian eta edozein aletan posible da Erkiaga, Urruzola, Arruza, Lafitte, Villasante, Mirande, Narbaitz, Salaberri, Uzturre eta beste askoren lanak aurkitzea, nolabait garai ilun haietan zubi izan zelarik eta gerora gehiago nabarmenduko ziren idazleen lagungarri eta bultzagarri: Jon Mirande, Txomin Peillen, Jon Etxaide, Gabriel Aresti, Txillardeggi.

Xipri Arbelbidek Piarres Xarritonek idatzitako ponentzia irakurri zuen, «Atzerriko Euskal Idazle Iparraldekoak», eta euskaldunen emigrazioa XIX. eta XX. mendean hiru ataletan banatu zuen: Hego Ameriketean, Ipar Ameriketean eta gero, Parisera joandako euskaldunen emigrazioa. Lehenengoan Fran-

tzizko Laphitz, Janpiarre Arbelbide, eta Juan Etchepareren gorabeherak kontatu zituen. Ipar Ameriketarako emigrazioa aipatzerakoan Janpiarre Goytinoren lana hartu zuen kontuan eta Parisera joandakoen artean Jon Mirande, Txomin Peillen eta Beñat Oiharzabalen izenak azpimarratu zituen.

Joseba Etxarrik, gai honi buruz hainbat informazio bildu duena, «Estatu Batuetako Euskal Herria» deituriko lana irakurri zuen, hango euskal errealitate eta historia, laburki sikiera, jakitera ematearren. Harritu samar geratu ziren zenbait idazle eta kritiko katalan eta gailego entzun zutenean duela oso hamar-kada gutxi arte, gerta zitekeen fenomeno a zela Euskal Herri-tik erdaldun joan eta Estatu Batuetan halabeharrez euskal-duntzea, ezinbesteko tresna izan baita euskara Estatu Batue-tako euskaldunen arteko eguneroko bizitzan.

Joseba Gabilondok, azken urteotan Estatu Batuetan bizi dena, ponentzia teoriko bat azaldu ordez ipuin antzeko bat irakurri zuen gaiari buruzko bere ideiak modu hobe edo era-kargarriago batean erakustearren. Bere lanaren titulua «Kre-ditu txartelak exilioan» izan zen eta eztabaida lortzeko zenbait ideia diskutigarri bota zituen bertan. Bere ustez gaur egun ez da posible exilioa lehen munduan, ezin da eman exilioa gure artean ez bada familiarik alde egiteko bilatzen dena. Eta exilio honek ere aitari eta amari kenduriko kreditu txartelek irauten duten beste iraungo du eta ez gehiago. Berak mundutik zehar ezagutu dituen idazle exiliatuak ez dira exiliatu nazio-arrazo-i batez, alderantziz, arrazo-i ez nazional batengatik baizik.

Koldo Izagirrek bere txostena bidali zuen bertan irakurtzeko. Sarrionandiaren exilioari buruzko testu bat zen eta Maite Gon-zalez Esnal eta Mariasun Landak irakurri zuten idazle portu-galdar baten laguntzaz. Berak zioenez egiaztaturik dago lerro zu-zena dela bi punturen arteko distantziarik motzena baina gogora ekarri zigun Sarrionandiak berak esaten zuena, alegia, ez dela oraindik ikertu zein den bi punturen arteko distantziarik luzeena. Joxan Artzek esandakoa ere gogorarazi zigun, bi punturen arteko biderik ederre na ren bila joan behar dugula eta ez bide-rik motzenaren bila. Izagirrek idazlanari amaiera ematen zion esa-nez gartzela ezagutu duena bere bizitza osoan izango dela exi-

liatua. Inoiz ez duela gartzela abandonatzen. Eta, azken finean, bi punturen arteko distantziarik luzeena exilioa dela.

Iñaki Zabaletak euskaldunen emigrazioaz hitz egin zigun. Emigrazio ekonomikoa eta emigrazio formatzailea (kanpora estudiantzera doazen gazteena) azpimarratu zituen bereziki. Bere us-tez emigrazioa eta exilioa *continuum* bat bezala hartu beharra da-go, beren berezitasun propioekin: emigrazioa sumisio edo me-nekotasunarekin lotu behar da eta exilioa, aldiz, intsumisioarekin. Hitz egin zen, baita ere, emigrantearen autosuntsitze-prozesuaz, nola doan pixkanaka bere erroak galtzen, bere kultura, bere hizkuntza... Aztertu ziren emigranteak bere baitan jasaten dituen aldatze-prozesuak: aurrena, aldaketa geografiakoa; aldaketa so-ziala bigarren eta azkenik, eta agian latzena, aldaketa sikikoa.

Joxemari Iturraldek euskaldunen exilioaz hitz egin zuen emai-tza literarioak kontuan izanik. Gero, euskal emigrazioan eman-dako fruitu literarioekin konparatu zituen, bereziki idatzitako no-bela aipagarrienak azalduz 60ko hamarkadara arte. Azkenik hi-ru nobela eredugarri aztertu eta konparatu zituen: Jose Ramon Zubillagaren *Lardasketan* eta Jon Andoni Irazustaren *Joanixio* eta *Bizia garratza da*. Bukatzeko esan zuen interesgarria litza-tekeela aztertzea zer izan duten pareko eta zer izan duten ezberdin katalan, euskaldun eta gailegoen emigrazioak eta exilioak.

Euskaldunen ponentzia «ofiziala» Emilio Lopez Adani egitea suertatu zitzaion eta halaxe egin zuen, luze eta sakon; datu literario eta historikoeekin batera berak bizi izandako esperientzia-tik ziprztinduriko hainbeste gauza erantsiz. Nolakoa izan den eta den euskal idazle exiliatua hasi zen aztertzen eta bereziki mende honetan nabarmendu diren izenak azpimarratu zituen gaur egunera iritsi arte. Izen handiak eta hauen obrak komen-tatu zituen: Krutwig, Mirande, Orixe, Martin Ugalde, Txillard e-gi... Azken orrialdea Sarrionandiari eskaini zion eta honelaxe amaitu zuen irakurketa (osoki galizieraz irakurria): «*Gaur egun, exilio bakarra klandestinitatea da. Ez hemen, ez han, inon ez. Gu-re oraingo idazle batzuek kanpo horretan idazten dute, etxean pu-blikatzen baditugu ere. Aipa dezadan bat, Joseba Sarrionandia. Exilio gogorrean idazten duen laguna. Demokrazian ere horrela -korik badela gogoratuz bururatuko dut gaurko hitzaldia.*»